



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Aldundiak ingurumeneko kontrol neurri barriak ezarri ditu Autzaganeke tuneleko beharretan, isurketarik egon ez daiten

Bilbon, 2014ko martiaren 28an.

Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako foru diputatu andreak Batzar Nagusien aurrean egindako agerraldian jakinarazo dauenez, Autzagane ganean Urdinbideko tuneletako beharrak egiten ari dan enpresak “obrako ingurumen laguntzaren kontrol neurri osagarri barriak” hartu ditu, Aldundiak eskatuta, azaroa eta martia artean, “ur zikin ez kutsakorren hiru isurketa” hauteman eta gero. Gaur egungo ur tratamendu sistema “ez da partikula txikienak dekantetako gauza”, Aldundiko bozeroaleak adierazo dauenez. Hori dala eta, Autzagane ABEE-ak Urdinbide erreka eta Oka erreka babesteko neurriak “indartu” behar izan ditu. Horretarako, prebentzinozko neurri moduan, joan dan martiaren 14tik aurrera eten egin dira tunelean egiten ari ziran hondeaketa lanak.

Garamendik adierazo dauenez, Amorebieta-Etxano-Muxika zatiaren barruan dagoan eta 670 metroko luzera daukan lur-azpiko tunelaren obrak barru jarriko dira martxan neurri “zuzentzaile” barriak ezarten diranean. Neurri horreek Uraren Euskal Agentziaren (URA) baimena daukie. Holan, “unidade mobikor” bat instalau da dagoaneko, uren zikinkeria tratetako, eta “gaur bertan” amaituko da konpartimentutan banatutako baltsa “barria”, partikula txikienak “erreaktibo” baten –uren zikinkeria murrizten dauen koagulante baten– bitartez tratetako, “atzo” instalau zan irazki baten bidez.

EH Bildu taldeak, isurketa horreek –azkenekoa martiaren 10ean hautemandakoa– Oka errekan “kalte garrantzitsuak” eragin ete daben galdetzeko “preminazko” agerraldia eskatu eban. Garamendik adierazo dau, hondeaketa lanen eta eurien ondorioz erreka ubidean geratu diran sedimentuak “naturalak dirala, eta ez dabela kutsadura kimiko esanguratsurik eragiten”.

Horrez gain, diputatu andreak, 2013ko uztailean tunela eregiteko beharrak hasi ziranetik ABEE-ak hartu dituan neurrien barri emon dau. Ingurumen arloko jarraipen “zorrotzaren” barruan, ikuskapenak egin dira “egunero”, laginak hartu dira hainbat puntutan, baltsen eta dekantagailuen “etenbako” mantentze lana egin da, sedimentuei eusteko hesien egoera kontrolau da eta, “datorren astetik aurrera”, Obra Zuzendaritzan ingurumen teknikari bat hasiko da beharretan “egun osoz”, baimendutako isurketa ez kutsakorrak zaintzen, gertu dagozan ubideetan, tuneletan hondeaketa lanek irauten daben bitartean. Halanda be, Garamendik adierazo dau obrak isurketak egiteko baimen bi dituala, bat URArena eta bestea Confederación Hidrográfica del Cantábrico izeneko erakundearena.

LURRETENAK BAKIO-BERMEO ERREPIDEAN

PP-k diputatu andreak agerraldia eskatu dau, Bakio eta Bermeo lotzen dituan BI-3101 errepidearen 32+980 kilometro puntuan egindako konponketa lanen barri emoteko, urtarrilaren 30ean izan ziran euri “indartsuak” dirala eta bertan egondako lurretenaren ostean. Aldundiak “190.000 euro” gastau ditu konponketa lanetan. Konponketetan egindako behar nagusia



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“tortsino hirukotzeko sareta eta blokeei eusteko hesi dinamikoa jartea izan zan”, hemendik aurrerako lurretenak saihesteko.

2011. urtean “10.625.707 euroko” kostuagaz bere ibilpide osoa aldatu eban errepidea barriro konpondu behar izatea ulertzen ez dauela-ta diputatu andrearen agerraldia eskatu dauen PP taldeari emondako erantzunean, Garamendik bere saila defendidu dau, egindako obrak beharrezkoak zirala esanez, obra horreek “egin aurretik” “sarritan gertatzen ziran lurretenak saihesteko”. Errepide barriarengaitik izango ez balitz, “une honetan, seguruenez, Bakio-Bermeo bideak itxita jarraituko leuke”, azpimarratu dau. Errepidea babesteko neurriek “funtzionau dabe”, eta azkeneko lurretena, errepide foru sareko beste puntu batzuetan sortu diran beste batzuen “antzeko epean” konpondu da.

URDULIZEKO OSPITALERAKO SARBIDEAK

Beste alde batetik, Herri Lan eta Garraioetako batzordeak atzera bota dau EH Bildu taldeak aurkeztutako arauz besteko proposamena. Proposamen horrek, beste gauza batzuen artean, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak “ahalik eta arinen” metroa lur azpian sartzeko beharrak bultzatzea eta lur azpiko metroaren eta Mungialdetik datorren Bizkaibuseko zerbitzuaren maiztasuna handitzea eskatzen eban, komunikazioak errazteko, Urdulizen egongo dan Osakidetzako eskualdeko ospitale barria martxan jarten danerako. Batzarretako generako taldeek atzera bota daben ekimen berean, koalizino abertzaleak eskaerea egin deutse Aldundiari, Osakidetzari, Bizkaiko Garraio Partzuergoari eta Sopolako eta Urdulizeko Udalei, alkartu daitezkan, ospitaleak beharko dituan sarbide barrietarako “soluzino egokiak” lortzeko. Soluzino edo konponbide horreen artean planteamentu aldaketea proponiduten zan, bideak aldundiaren esku geratu daitezkan.

Batzarretako taldeen desadostasun nagusiak ospitale barrirako sarbideen inguruan sortu dira. EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeek ez dabe EH Bilduren ekimena onartu, bere egunean parte hartu eben erakundeen artean dagoaneko “adostu eta erabagi” zan gauza bat barriro aztertzea eskatzen dauelako. Jon Larrea jeltzaleak, planteetan dana Sopolako eta Urdulizeko urigintza planeamendua aldatzea dala gogoratu deutso koalizino abertzaleari, herri horreetatik igaroko dalako ospitalera joateko errepide barria. Udalerri horreetako osoko bilkurek sarbide horreek “onartu” ebezan, eta Bilduk “akordio horreek errespetau beharko ditu”, adierazo dau PP-ko Jesus Isasik. Ospitalea eregitea erabagi “aurretik be planeauta egozan”, gogoratu dau Joaquín Colmenero batzarkide sozialistak.

EAJ-PNV-k eskaerea egin deutso EH Bilduri, Soplan bete beharreko konpromisoak bete daizkan –udalerri horretan koalizino abertzaleak gobernetan dau– ez ditualako errepidea eregiteko beharrezkoak diran “aurretiko izapideak egin”. Larreak Bilduri galdetu deutso zergaitik gura dauen Aldundiak Urdulizeko udalaren borondatea “ordeztea”, zergaitik gura dauen Sopolako Udalak bere eskumenak “alde batera ixtea”, eta ze interes daukan jaube pribaduak, kostaldean dagoan ospitalerako sarbideek hartuko dituen lurren urbanizazino lanak egiteko beharretik “libretako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación establece nuevas medidas de control ambiental en las obras del túnel de Autzagane para evitar vertidos

En Bilbao, a 28 de marzo de 2014.

La diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha anunciado esta mañana en una comparecencia en las Juntas Generales, que la empresa encargada de ejecutar las obras de los túneles de Urdinbide en el alto de Autzagane, está tomando “nuevas medidas de control complementarias a la asistencia ambiental de la obra” a instancias de la Diputación, tras detectarse, entre noviembre y marzo, “tres vertidos de aguas turbias no contaminantes”. El actual sistema de tratamiento de aguas “no es capaz de decantar las partículas más pequeñas”, según la responsable foral, por lo que su departamento ha obligado a la UTE Autzagane a “reforzar” las medidas de protección del arroyo Urdinbide y del río Oka, hecho que ha supuesto como medida preventiva la interrupción de las labores de excavación en el túnel desde el pasado 14 de marzo.

Garamendi ha señalado que las obras del subterráneo de 670 metros de longitud, incluido en el tramo Amorebieta-Etxano-Muxika, volverán a iniciarse en cuanto se establezcan las nuevas medidas "correctoras" que cuentan con el consentimiento previo de la Agencia Vasca del Agua (URA). En concreto, se ha instalado ya una “unidad móvil” para el tratamiento de la turbidez de las aguas, y “hoy mismo” se acabará de ejecutar una “nueva” balsa compartimentada para tratar con un “reactivo” –un coagulante para rebajar la suciedad de las aguas- las partículas más pequeñas mediante un filtro que fue instalado “ayer”.

En su respuesta a EH Bildu que había pedido su comparecencia “urgente” en la creencia de que estos vertidos -el último de ellos detectado el 10 de marzo- hubieran podido producir “importantes daños” en el río Oka, Garamendi ha señalado que los sedimentos depositados en los cauces fluviales como consecuencia de los trabajos de excavación y de las lluvias, son “naturales y no generan contaminación química significativa”.

A su vez, la diputada ha relatado las medidas adoptadas por la UTE desde que comenzara la construcción del túnel por Muxika en julio de 2013. El “exhaustivo” seguimiento ambiental ha contado con inspecciones “diarias”, muestreos en diferentes puntos, mantenimiento “constante” de balsas y decantadores, control del estado de las barreras de retención de sedimentos y, “desde la próxima semana”, la incorporación de un técnico ambiental en la Dirección de Obra que se dedicará “en exclusiva” a la vigilancia de los vertidos autorizados y no contaminantes en los cauces cercanos durante la excavación de los túneles. Aún así, Garamendi ha señalado que la obra cuenta con dos autorizaciones de vertido, una de URA y otra de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

DESPRENDIMIENTOS EN LA CARRETERA BAKIO-BERMEO

La diputada comparecía a petición del PP para explicar las labores de reparación efectuadas en el punto kilométrico 32+980 de la BI-3101 que comunica los municipios de Bakio y Bermeo, tras el desprendimiento sucedido el 30 de enero, como consecuencia de las “intensas” lluvias.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Los arreglos costaron a la Diputación "190.000 euros" y éstos consistieron básicamente en la "colocación de una malla de triple torsión y una barrera dinámica de contención de bloques" para evitar futuros deslizamientos de tierra.

En respuesta al PP, que pedía su comparecencia por no entender que se tenga que volver a arreglar una carretera que modificó su trazado en 2011 con un coste total de "10.625.707 euros", Garamendi se ha defendido diciendo que estas obras "eran necesarias para prevenir los deslizamientos, tan frecuentes" que se daban "anteriormente". Si no fuera por la nueva vía, "a esta hora, probablemente, el acceso Bakio-Bermeo continuaría cerrado", ha advertido. Las medidas protectoras de la vía "han funcionado" y el último desprendimiento "se ha resuelto en un plazo similar" a otros originados en la red foral de carreteras.

ACCESOS AL HOSPITAL DE URDULIZ

Por otro lado, la comisión de Obras Públicas y Transporte ha rechazado una proposición no de norma del grupo EH Bildu que planteaba, entre otras cosas, que la Diputación y el Gobierno Vasco impulsasen "lo antes posible" los trabajos de soterramiento del metro, e incrementasen la frecuencia del suburbano y el servicio de Bizkaibus desde Mungialdea, de cara a facilitar las comunicaciones una vez que se ponga marcha el nuevo hospital comarcal de Osakidetza en Urduliz. En la misma iniciativa, rechazada por el resto de grupos de la cámara, la coalición abertzale solicitaba a Diputación, Osakidetza, Consorcio de Transportes de Bizkaia y los Ayuntamientos de Sopela y Urduliz, a reunirse para alcanzar "soluciones adecuadas" para los nuevos accesos viarios del hospital, entre lo que se proponía un cambio de planeamiento para que los viales pasaran a ser de titularidad foral.

Las principales desavenencias de los grupos junteros han llegado con los accesos viarios del nuevo hospital. PNV, PSE-EE y PP han rechazado la iniciativa de EH Bildu por incidir en algo que está "pactado y acordado" en su momento por las instituciones implicadas. El jeltzale Jon Larrea ha recordado a la coalición abertzale que lo que se plantea es modificar el planeamiento urbanístico de Sopela y Urduliz, municipios por los que cruzará la nueva carretera de acceso al centro hospitalario. Los plenos de ambas localidades "aprobaron" estos viales y Bildu "tendrá que respetar estos acuerdos", ha advertido Jesus Isasi, del PP. Estaban planeados "antes incluso" de decidirse la construcción del hospital, ha señalado el apoderado socialista Joaquín Colmenero.

El PNV ha pedido a EH Bildu que cumpla con los compromisos en Sopela -municipio donde gobierna la coalición abertzale- ya que "no ha hecho los trámites previos" para hacer el vial. Larrea ha preguntado a Bildu por qué esta formación pretende que la Diputación "suplante" la voluntad del ayuntamiento de Urduliz, por qué quieren que el ayuntamiento de Sopela se "inhiba" en sus competencias y qué interés tienen por "exonerar" a propietarios privados de realizar la urbanización por donde discurrirán los nuevos accesos al hospital en el municipio costero.